

FUNTSEZKO SOZietATEAK / SOCIEDADES CLAVE

Zeintzuk dira behar ditugun bazkide edota hornitzaile nagusiak proiektuak funtziona dezan? Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Adibidez,

“beharrezkoa da hornitzaile konkretu baten lana denbora laburrean egitea gure lana ongi bete dadin” (4.gaia begiratu Fusión/Absorción; Concentración vertical)

“beharrezkoa urte sasoi konkreturen batean azpikontratazioa”.

“beharrezkoa bazkide konkretu batzuen ekarpena, bestela gure negozioak ez luke funtzionatuko”. Adibidez, xurgatu dugun enpresak patentea dauka).

Proiektua behar bezala funtziona dezan, hainbat bazkide eta hornitzaile garrantzitsu behar ditugu. Hauek ezinbestekoak dira, proiektuaren helburuak lortzeko eta gure zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko.

Aparkalekuen jabeak edo kudeatzaileak (Inguruko Aparkaleku Sareak)

Proiektuak aparkaleku guneak lokalizatzean oinarrituta dagoenez, garrantzitsua da aparkaleku sare zabala duten bazkideekin edo azpikontratatzaleekin lan egitea. Hau da, erabiltzaileek gure aplikazioa erabili ahal izateko behar duten gune fisikoa/haiek mugitzen edo lokalizatzen diren eremua Horrela, gure aplikazioak benetan eskaintzen duen balioa handitzen dugu, hau da, aparkaleku libreak aurkitzea erabiltzaileentzako errazagoa izango da.

Garraioaren eta mugikortasunaren teknologia hornitzaileak

Aparkatzeko guneen bilaketa sistema funtzionala izan dadin, GPS-etan espezializatutako hornitzaileek ekarpen handia egin behar dute. Horiek gabe, aplikazioa ez litzateke hain zehatza eta eraginkorra izango, eta honen ondorioz, erabiltzaileen esperientzia okertu egingo litzateke.

Aplikazioaren segurtasunaren kudeatzaileak (zerbitzuak eta datuen babeslea)

Beharrezkoa da aplikazioaren erabiltzaileen datuak babestea eta segurtasun neurriak ezartzea. Hori dela eta, segurtasunaren kudeaketa eta datuen babesa espezializatutako hornitzaileak garrantzitsuak dira. Horiek gabe, erabiltzaileek ez baitute aplikazioa erabiltzeko konfiantzarik izango.

Banku edo ordainketa pasarelen hornitzaileak

Aparkalekuen ordainketa sistemak kudeatzea funtsezkoa da. Banku hornitzaileak ezinbestekoak dira, sistema seguruak eta erabiltzailearentzako errazak eskaini ahal izateko.

Marketing eta iragarpen kanpainetan espezializatutako enpresak

Berdin da aplikazioa oso erabilgarria izatea eta arazo asko saihesteko aukera eskaintzea ez bagara erabiltzaile potentzialengana iristeko gai. Beraz, marketing eta komunikazio estrategiak garatzen dituzten bazkideen laguntza behar dugu, proiektuaren ikusgarritasuna handitzeko eta erabiltzaile berri gehiago erakartzeko.

Laburbilduz, proiektua arrakastatsua izan dadin, funtsezko bazkide eta hornitzaileekin lankidetzan aritzea beharrezkoa da.